LARRAULGO UDALA
(GIPUZKOA)

2011ko MAIATZAREN 11an, LARRAULGO UDAL PLENO ARETOAN EGINDAKO OHIKO UDALBATZAREN AKTA

2011ko maiatzaren 11an, Larraulgo Udaletxeko Pleno Aretoan, arratsaldeko 19.30 orduetan, Xabier Mujika Pagola alkatearen lehendakaritzapean, behean aipatzen diren zinegotziak biltzen dira.

ALKATE ORDEA: Xabier Mujika Pagola

ZINEGOTZIAK: Karlos Irazu Muñoa
Adela Mendiola Gomez
Gotzon Jauregi Sarasola
Igor Barandiaran Perez de Arriluzea

IDAZKARIA: Ane Gomez Urteaga

.../...

Alkate-lehendakari jaunak bilerari hasiera ematen dio, ondorengo gaiak tratatzen direlarik:

1. **Ondoren adierazten den Udalbatzarreko akta onestu, hala badagokio:**
   - **2011ko apirilaren 7an egindako ohiko bilkura**
2. **Alkatetza ebazpenen berri ematea.**
3. **2009. Urteko aurrekontuaren kontu orokorraren onespena, hala bada.**
4. **Parke aldameneko aparkalekuaren alokairu kontratua onartzea, hala badagokio.**
5. **Beobide-gain jabeen erkidegoak aurkezturiko kexaren azterketa.**
6. **Antton Amonarriz kulturetxeko gelen erabilerari buruzko eskaera ereduaren onespena, hala bada.**
7. **Fakturak eta ordainketak.**
8. **Beste batzuk.**
9. **Erregu, galderak eta mozioak.**

.../...

LEHENENGO PUNTUA
ONDOREN AIPATZEN DEN UDALBATZAREN AKTA ONESTU, HALA BADA.

- 2011 urteko apirilaren 7ko Ohiko Udalbatzaren akta. Irakurri ondoren bertaratuek aho batez onestu dute.

BIGARREN PUNTUA
ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA

Alkate jaunak azkeneko Udalbatzarretik emandako ebazpenen berri ematen du:

08/2011 Alkatetza Ebazpena, apirilaren 6koa, Tolosaldea Garatzen S.A. kotxe elektrikoaren alokairu-zerbitzuaren bideragarritasun azterketaren egile izendatzea, Larraulgo Udalari dagokion laguntza-teknikoaren kontratazioa modu bateratuan egiteko eta Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu sailera diru laguntza eskaera egiteko, ebazten duena.

09/2011 Alkatetza Ebazpena, apirilaren 19koa, Villabona, Zizurkil, Asteasu eta Larraul udalerriak osatzen duten bake-epaitegien idazkaritza-elkarteari dirulaguntza ematea, dituzten funtzionamendu gastuetarako, ebazten duena.

10/2011 Alkatetza Ebazpena, maiatzaren 3koa, 2011ko 1. Hiruhilabeteari dagokion ura eta zabor tasen erroldak onestea, ebazten duena.

11/2011 Alkatetza Ebazpena, maiatzaren 3koa, J.G.A. jaunaren eskera onartzea eta Goieneta barrena baserriko zabor bilketa zerbitzuko zergari baja ematea, 2011ko urtarrilaren 1eko dataz, ebazten duena.

Bertaratuak jakinaren gainean gelditzen dira.

HIRUGARREN PUNTUA
2010 URTEKO AURREKONTUAREN KONTU OROKORRAREN ONESPENA, HALA BADA

Udaleko Behin behineko Idazkari Kontuhartzaileak 2010 ekitaldiko Kontu Orokorraren berri eman du.

Gaia azterturik, bertaratuek, aho batez, ondorengoa,

ERABAKITZEN DUTE

LEHENA.- Abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak, Toki Ogasunen Aurrekontuari buruzkoak, bere 63 artikuluan xedaturikoari jarraituz 2010 ekitaldiko Larraulgo Udaleko Kontu Orokorra, hamabost lan-egunez jendeaurrean jartzea, dagokion iragarkia GAOn eta Udaleko Iragarki Taulan argitaratuz, edonork dokumentazioa aztertu eta egoki dituen iradokizunak burutu ditzan.

BIGARRENA.- Jasotako erreklamazio eta iradokizunekin batera, Kontu Orokorra Udalbatzarrari igorri, aztertu eta egoki baderitzo onar dezan.

LAUGARREN PUNTUA
PARKE ALDAMENEKO APARKALEKUAREN ALOKAIRU KONTRATUA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO

Ikusirik Larraulgo Udalerriko parke aldamenean dagoen aparkalekua, Usandizaga Ceberio familiaren jabetzakoa dena, herriko aparkaleku moduan erabiltzen dela eta jarduera horretarako beharrezkoa dela.

Ikusirik, alokairu kontratua bukatu dela eta beharrezkoa dela berri bat egitea.

Bertaratuek, gaia azterturik, aho batez

ERABAKITZEN DUTE

LEHENA.- Usandizaga Ceberio familiarekin, parke aldamenean dagoen aparkalekua alokatzeko kontratua berritzea, 2010/08/01-2011/07/31 epealdian, 196,88 euroko alokairua ordaindu zen, eta urtero dagokion PFZ aplikaturik ematen duen diru kopurua ordainduz. Bost urteko iraupenarekin.

BIGARRENA.- Erabaki honen berri Usandizaga Ceberio familiari ematea.

BIGARRENA.- Alkatea baimentzea aipatutako kontratua sinatzeko.

BOSTGARREN PUNTUA
BEOBIDE-GAIN JABEEN ERKIDEGOAK AURKEZTURIKO KEXAREN AZTERKETA

Ikusirik A.A.J. jaunak 2011ko apirilaren 15ean aurkezturiko idatzia, non dioen:

"*D.A.A.J., mayor de edad, casado, con domicilio en Beobidegain nº 18 y con D.N.I. ……..comparece y como mejor proceda dice:*

Que mediante escrito que tuvo su entrada en dependencias municipales con fecha 24/05/2010, el compareciente, actuando en nombre y representación y en su calidad de Presidente de la Comunidad de Propietarios de Beobidegain, formuló solicitud ante la Corporación Municipal instando autorización para la ejecución de determinada instalación.

Que a día de hoy, esa Corporación Municipal nó ha emitido pronunciamiento expreso alguno respecto de la solicitud formulada y que venga a resolver la cuestión.

*Que de conformidad a lo establecido ene l art. 42 de la Ley 30/1992 de 26 de diciembre"**la Administración está obligada a dictar resolución expresa en todos los procedimientos y a notificarla, cualquiera que sea su forma de iniciación."***

*Esta falta de respuesta por parte de la Administración, incumpliendo su deber legal de dictar resolución expresa resolviendo respecto de la solicitud cursada, viene a situarnos en un "limbo legal" de tal calibre que, genera una **INDEFENSION MANIFIESTA** para el suscribiente, quien se limita de brazos cruzados a ver pasar el tiempo esperando conocer una resolución que, antes o despúes debe pronunciarse por el obligado a ello, esto es, el Ayuntamiento de Larraul, conforme a la argumentación anteriormente referida.*

La Administración nó puede burlarse de la ciudadanía incumpliendo "sine die" su obligación de resolver expresamente las solicitudes que le postulan los ciudadanos, deber éste que se entronca con lo establecido en el art. 29 de la Constitución española.

Por lo expuesto,

SUPLICO: Que habiendo por presentado éste escrito y por causadas las manifestaciones en el mismo contenidas, se sirva admitirlo, procediendo a que por el Organo competente y a la vista del escrito formulado por el suscribiente con fecha 24/05/2010, dicte resolución expresa resolviendo así respecto a la solicitud formulada.

Ikusirik, 2010eko maiatzaren 24ean Beobidegain jabeen Erkidegoak, Udaletxe honetan aurkezturiko idatzia, 2010eko ekainaren 10ean egindako ohiko Udalbatzarrean aztertu eta erabaki bat hartu zuela.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENGOA.- A.A. jaunari 2010eko ekainaren 10ean egindako ohiko Udalbatzarraren erabakia jakinaraztea. Ondorengoa delarik:

"LEHENA: Beobidegain jabeen erkidegoak eginiko eskaera ukatu, Etxebizitzen "egiteko proiektuaren" arabera, gaur egungo partzela bakoitzaren eraikigarritasuna agortua gelditu delako.

BIGARRENA: Beobidegain jabeen erkidegoari jakinarazi, Larraulgo Herria antolatzeko Plan orokorra idazten ari dela eta bertan aztertuko dela egindako eskaera hau.

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri Beobidegain jabeen erkidegoari ematea."

SEIGARREN PUNTUA
ANTTON AMONARRIZ KULTURETXEKO GELEN ERABILERARI BURUZKO ESKAERA EREDUAREN ONESPENA, HALA BADA

Ikusirik, 2011ko apirilaren 7an egindako ohiko Udalbatzarrean proposatu zela Antton Amonarriz kultu-guneko gelen erabilerari buruzko eskaera eredua prestatzea, ondoren onartua izan zedin.

Ikusirik eskaera eredua prestatu dela. Batzarkideak, eredua aztertu ondoren hau osatzeko proposamena egiten dutela, ondorengoak direlarik :

-Gela erabili ondoren, ibilitako altzariak lehen zeuden bezala utzi beharko dira.
-Gela erabili ondoren, Kalefakzioa eta argi indarra itzalita utzi beharko dira.
-Eskaeraren hiru ale egingo dira, bata eskatzaileari emateko, bestea Udaletxean gordetzeko eta hirugarrena kultu-guneko iragarki taulan jartzeko.

Gaia aztertuta, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

BAKARRA: Antton Amonarriz Kultur-guneko gelen erabilerari buruzko eskaera eredua onartzea goian proposaturiko aldaketekin, ondorengoa delarik:

ANTTON AMONARRIZ KULTURETXEKO GELEN ESKAERA

ESKATZAILEA:	
E.N.A.:	
HELBIDEA:	
TELEFONOA:	

GELA:	
EGUNA:	
ORDUA:	

GELA ESKAERAREN ZERGATIA	

-Gela erabili ondoren, ibilitako altzariak lehen zeuden bezala utzi beharko dira.
-Gela erabili ondoren, Kalefakzioa eta argi indarra itzalita utzi beharko dira.

Larraulen,

Eskatzailearen sinadura

XABIER MUJIKA PAGOLA, LARRAULGO UDALEKO ALKATE naizenez, baimena ematen dut goian aipatzen den gela erabiltzeko.

Larraulen,

Alkatea
Xabier Mujika Pagola

ZAZPIGARREN PUNTUA
FAKTURAK ETA ORDAINKETAK

Alkate-Lehendakari jaunak ondorengo faktura zerrenda aurkeztu du:

KIROLZER	118,45
BABESA SUZAI	136,42
EBA ERKIZIA BRION	655,94
ELECTRICIDAD ZIZURKIL	191,08
ZITU	69,95
EINBER	295,00
GIPUZKOAKO URAK	3.917,81
TOLOMENDI	2.098,37
ULAHI	803,70
JOXAN ALTUNA	214,28
FERRETERIA BARBE	79,56
MANPEL	98,83
IZFE	1.918,55

ERAIN	1.702,74
UROLA	58,13
FERRETERIA BARBE	22,18
IBERDROLA	65,48
IBERDROLA	89,28
IBERDROLA	39,55
IBERDROLA	162,56
IBERDROLA	89,20
IBERDROLA	29,46
IBERDROLA	27,38
IBERDROLA	132,49
IBERDROLA	124,95
IBERDROLA	313,27
IBERDROLA	161,44
REPSOL	337,65
REPSOL	107,20
MOVISTAR	89,19
MOVISTAR	20,54
MOVISTAR	87,48
MOVISTAR	17,87
EUSKALTEL	198,94

Udalbatzarrak **ahobatez** hurrengoa,

ERABAKITZEN DU

BAKARRA.- Aipaturiko fakturak, denera **14.474,92** Eurotako kopurua osatzen dutenak onartzea.

ZORTZIGARREN PUNTUA
BESTE BATZUK

8.1.LARRAULGO HERRI OSTATUKO SUKALDEKO KANPAIA KONPONTZEKO AURREKONTUAREN AZTERKETA.

Ikusirik, Larraulgo Herri Ostatuaren kudeatzaileak Udaletxe honi jakitera eman diola sukaldeko kanpaia matxuratuta dagoela.

Ikusirik, Larraulgo herri Ostatuko sukaldeko kanpaia konpontzeko, aurrekontu bat eskatu dela.

Ikusirik batzarkideak proposatzen dutela beste aurrekontu bat eskatzea, Ostatuko sukaldeko kanpaia konpontzeko. Batzarkideak, konponketaren gastua Udalak ordaintzearekin ados daudelarik.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Larraulgo Herri Ostatuko sukaldeko kanpaia konpontzeko erabakia hartzea. Udalak konponketaren gastua bere gain hartuko duelarik.

BIGARRENA: Larraulgo Herri Ostatuko sukaldeko kanpaia konpondu baino lehen beste aurrekontu bat eskatzea eta bietatik hoberena dena onartu eta matxura konpontzea.

8.2. DANENA-AMAROZ EGITURARAKO ERRENDIMENDUKO KIMU LEHIAKETARAKO PLAZ ESKAERARI LAGUNTZA ESKEINTZEA.

Ikusirik, Danena kirol Elkartea eta Amaroz kirol Elkarteak aurkezturiko eskaera, non, Larraulgo Udalari laguntza eskatzen dio Tolosaldeako haurrei Gipuzkoako beste edozein eskualdetako haurrek duten futbolean jokatzeko aukera berberak emateko aurkeztutako proiektuari, eta era berean, Gipuzkoako Foru Aldundiari, Gipuzkoako Futbol Federazioari eta Real Sociedad SAC eri eskatzen die egitura honi 2011-2012 denboraldian errendimenduko kimu lehiaketarako plaza bat eskain diezaiotela egitura honi.

Gaia azterturik, Udalbatzak, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

BAKARRA: Larraulgo Udalak laguntza eskaintzen dio Danena Kirol Elkartea eta Amaroz Kirol Elkarteak Tolosaldeako haurrei Gipuzkoako beste edozein eskualdetako haurrek duten futbolean jokatzeko aukera berberak emateko aurkeztutako proiektuari. Era berean, Gipuzkoako Foru Aldundiari, Gipuzkoako Futbol Federazioari eta Real Sociedad SAC eri eskatzen die egitura honi 2011-2012 denboraldian errendimenduko kimu lehiaketarako plaza bat eskain diezaiotela egitura honi.

8.3. RAFAEL URIBARREN LANDA INGURUNEAREN GARAPENEKO DEPARTAMENTUAREN DIPUTATUAREKIN EGINIKO BILERAREN BERRI EMATEA

Ikusirik, LANDAGIPUZKOA 32 dirulaguntzen babesean, Larraulgo Udalak eraikin balioanitz bat egiteko diru-laguntza eskaera egin zuela, aipaturiko eraikina egiteko Foru Aldundiak Larraulgo Udalari 350.000 eurotako diru-laguntza ematea onestu zuela.

Ikusirik diru-laguntza hauek 2011 urtean bukatzen direla.

Ikusirik, Foru Aldundiak Udal honi jakinarazi diola, Larraulgo Udalari, eraikin balioanitz bat egiteko esleitutako diru-kopurua ez duela.

Aurrekoa kontutan harturik, Larraulgo Udaleko ordezkariak Rafael Uribarren Landa Ingurunearen garapeneko departamentuaren Diputatuarekin hitzordua eskatu zuten. Bileran, Rafael Uribarren Diputatuak bere departamentuak Larraulgo Udalari esleituriko diru kopurua ez duela jakinarazi zien, eta adierazi zien irailerarte itxaron beharko zutela Udal eta Batzar Nagusietako hauteskundeak direla eta, gai honi buruz hitzegiten jarraitzeko.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Rafael Uribarren Landa garapeneko diputatuak harturiko konpromisoa idatziz egin dezan eskatzea.

BIGARRENA: Landa garapeneko departamentutik hartutako konpromisoa gauzatu dadin eta Larraulen eraikin balioanitz bat egiteko beharrezkoa den Inbertsio Plana prestatzeko, behar diren izapideak martxan jartzea.

8.4. PELLO ERROTA HERRI IKASTETXEKO GONBIDAPENAREN BERRI EMATEA.

Ikusirik Pello Errota Herri Ikastetxetik igorritako gonbidapena, non azaltzen duen, maiatzaren 16an, arratsaldeko 14.45etan, Asteasuko Pello Errola eskolan festa txiki bat ospatu behar dutela “eraikin berriari ongi etorri festa” egiteko.

Aurrekoa kontutan izanda, Pello Errotako Batzorde Iraunkorrean horrela erabakita, Larraulgo udalerriko udalbatza osoa gonbidatua geratzen da, egin behar den festa txiki horretan parte hartzera.

Guzti hau kontutan harturik, batzarkideak, Pello Errota Herri Ikastetxeak egindako gonbidapenaren jakin gainean gelditzen dira.

8.5. ZIZURKILGO UDALAK EGINIKO ESKAERA AZTERTU.

Ikusirik Zizurkilgo Udalak eginiko eskaera, hau da, maiatzaren 13 eta 20an Zizurkil goiko frontoian jolastuko diren partidetan, Larraulgo futbitoko porteriak erabiltzeko eskaera egiten dute. Porteri bila maiatzaren 13an etorriko direla eta 23an bueltatuko dituztela ere jakinarazten dute.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Zizurkilgo Udalari, maiatzaren 13tik 23ra Larraulgo futbitoko porteriak erabiltzeko baimena ematea.

8.5. MURGIL GURASO ELKARTEAK EGINIKO ESKAEREN AZTERKETA:

-EKOLAPIKO PROIEKTUA
-HAURRESKOLARI BURUZKO ESKAERA

-EKOLAPIKO PROIEKTUA

Ikusirik EKOLAPIKO proiektua, hau da, Elikadura Ekologiko eta Orekatua, martxan dagoela hainbat haur eskoletan.

Ikusirik Ekolapiko proiektua Larraulen martxan jartzea interesgarria izan daitekeela, informazio gehiago eskatzeko proposamena luzatzen delarik.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Ekolapiko proiektuaren Lehenengo pausoa martxan jartzea, hau da: Ekolapiko proiektuari buruzko informazio gehiago eskatzea, horretarako Biolurrekin harremanetan jarri eta Larraulera teknikari bat etorri dezala eskatzea. Bilera bat antolatu Biolurreko teknikaria, Guraso Elkartearekin, Herri Ostatatuko kudeatzailearekin eta Udaleko ordezkariekin, proiektua zertan datzan azaldu ondoren, Larraulgo eskolan martxan jarri daitekeen aztertu dadin.

-HAURRESKOLARI BURUZKO ESKAERA.

Ikusirik Murgil Guraso Elkarteak Udalari eginiko proposamena, non azaltzen duten, Larraulgo haurreskolan ume bat dagoela matrikulatuta eta datorren urtean zerbitzuaren erabiltzaile izan litekeen beste ume bat jaio gabe dagoela.

Ikusirik 2010 urtean Zuzendaritza batzordeak erabaki zuela 3 ume behar zirela haurreskola zerbitzua martxan jarraitzeko eta haurreskola itxi ezkero berriro irekitzeko 3 ume behar zirela. Berri bat irekitzeko aldiz 5 haur beharko zirela.

Ikusirik 2011ko apirilean egindako Zuzendaritza batzordean erabaki zela, Haurreskolak irekita mantentzeko emandako plazen % 50 eko matrikulazioa, hau da, Larraulgo Haurrekola kasuan 5 ume matrikulatuta behar zutela kasu guztietan, bai

irekita mantentzeko bai berri bat irekitzeko. 5 matrikulazio baino gutxiagoko herrietan Partzuergoak kasuz kasu aztertuko lukelarik.

Beraz guzti hau kontutan harturik, Murgil Guraso Elkarteak Udalari proposatzen dio, 2 urteko gelan hastekoak diren umeak haurreskolan uztea, eta gurasoei suposatuko lukeen gastua, % 50 a Guraso Elkarteak ordaintzea eta beste % 50a Udalak, horrela Larraulgo Haurreskola irailean ez luke itxi beharko.

Gaia kontutan izanda, Karlos Irazu zinegotziak proposatzen du formula bat bilatzen saiatu beharko direla, ahalik eta kostu gutxiena jarriz zerbitzua mantentzeko, eta horren alde apustu bat egitea.

Xabier Mujika Alkateak dio, Udalak haurreskola zerbitzua martxan jartzeko inbertsio handi bat egin zuela eta Udalak ezin duela finantzatu zerbitzu hori erabili nahi duenari.

Adela Mendiola zinegotziak aldiz azaltzen du, ekonomikoki ez dela garai ona , beraz gehiegikeria iruditzen zaiola 2 ume baino gutxiagoko herri batean haurreskola zerbitzua martxan egotea.

Igor Barandiaran zinegotziak azaltzen du arriskutsua iruditzen zaiola Guraso Elkarteak eginiko proposamena onartzea.

Azkenik Gotzon Jauregi zinegotziak dio, kostua handia dela Udalak horri aurre egiteko.

Beraz, bertaratuek iritzi desberdinak dituztenez, Murgil Guraso Elkarteak eginiko proposamenari buruz, proposamena bozkatu egiten da, ondorengoa delarik emaitza:

-Aldeko botoak: 1 (Irazu zinegotzia)
-Kontrako botoak: 4 (Mujika Alkatea eta Barandiaran, Mendiola eta Jauregi zinegotziak)
-Abstentzioak : 0

Bozketaren emaitza ikusirik, Udalbatzak, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Murgil Guraso Elkarteak eginiko ekonomiko laguntza eskaera ez onartzea.

BIGARRENA: Erabaki honen berri Murgil Guraso Elkarteari ematea.

BEDERATZIGARREN PUNTUA
ERREGU, GALDERAK ETA MOZIOAK

Ez dira aurkezten.

Beste gairik ez dagoenez, gaueko 21.40 orduak direnean Alkate orde jaunak bilera amaitutzat ematen du, nik, Idazkari-Kontuhartzaile naizen honek akta honetan jasotakoa ziurtatzen dudalarik.

ALKATEA IDAZKARI-KONTUHARTZAILEA